



AKTEA
BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA
(2025-06-27/04)

Bilkuraren izaera:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Data:	2025-06-27
Lekua:	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	09:00
Amaiera-ordua:	10:07

Bertaratuak

Alkate-Presidentea: Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

Zinegotziak:

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Ainhoa Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)
	Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV)

Bertaratu ez direnak: Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU). 2025eko apirilaren 9ko 4948 Sarrera Erregistro bidez botoa alkatearengan delegatuta.

Xabier Ortuzar Butron (GUZAN) 2025eko ekainaren 19ko 8992 Sarrera Erregistro bidez botoa alkatearengan delegatuta.

Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)

Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)

Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jose Ramon Alberdi Asteinza

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-04-30 OB (03)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Bake epailea eta ordezkoa izendatzea onartzea.
- 4.- Bermeoko Udalaren 2025. urteko araudi plana aldatzea onartzea, hilerriko ordenantza aldatzeko.
- 5.- Udal hilerriko ordenantzaren aldaketa onartzea.
- 6.- Sastar batzeagatik tasaren epigrafe aldaketa hasieraz onartzea.
- 7.- 2024. urteko biztanle-zifra onartzea.
- 8.- "Ekainaren 28ko mozioa" onartzea.
- 9.- 2025/2959 zenbakidun Alkatetza Dekretua berrestea. BFAko Kontratazio Zentralera atxikitzea onartzea.
- 10.- 2025eko 1. hiruhileko hornitzaileei ordainketen inguruko txostenaren berri ematea.
- 11.- 2025eko 1. hiruhileko morositate datuen berri ematea.
- 12.- 2025eko 1. hiruhileko fakturei buruzko txostenaren berri ematea.
- 13.- 2025eko 1380-3668 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 14.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2025eko apirilaren 29 eta maiatzaren 6 eta 13ko erabakiak.
- 15.- Eskari eta itaunak.

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta hasteko Xabier Ortuzar Butron (GUZAN) 2025eko ekainaren 19ko 8992 Sarrera Erregistro bidez aurkeztutako idatzia azaldu du:

“ ...

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua araber, aitatasunean izango naizela 2025/06/12tik 2025/.../... data. Horregatik, garai horretan egingo diren Osoko Bilkuretan, eztabaidatzeko eta botoa emateko nire ahalmena Nadia Shomaly andreari delegatzen deusat.

Halan jasota geratu dadin, dagozkion ondorioetarako, eztabaidatze eta bozkatzeko ahalmen delegazio hau egiten dot.

...”

Ondoren, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2025-04-30 OB (03)

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=38>

Batzarkideek 2025eko apirilaren 30eko 03/2025 akta aho batez onartzea erabaki dute.

2.-BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=60>

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

3.- BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA IZENDATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=73>

Xedea

Bake Epailea eta ordezkoa izendatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran Bake Epailea eta ordezkoa izendatzeko prozesuari hasiera emoteko oinarriak eta deialdia zabaltzea onartu zen

Bigarrena: Deialdia 2024ko ekainaren 13ko BAO'n argitaratu zen, eta eskariak aurkezteko epean, ez zen ezelako eskaririk aurkeztu. Hori horrela, 2024ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran, prozesua hutsik deklaratzeko eta, onartutako oinarrien arabera deialdi berria egitea erabaki zen.

Hirugarrena: Deialdi berria 2024ko urriaren 9ko BAO'n argitaratu zen.

Laugarrena: 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran Bake Epaille legez izendatzeko pertsonen proposamena egin zen eta hurrenkera zehaztu zen.

Bosgarrena: 2025eko urtarrilaren 14an uko egiteko eskaria aurkeztu du Osoko bilkurak proposatutako lehenengo pertsonak eta 2025eko urtarrilaren 16an ordezkoko lege izendatutako pertsonak Bake Epaille legez izendatzeko eskaria egin du.

Seigarrena: 2025eko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran bake epaile titularra eta bere ordezkoa izendatu ziren. 2025eko maiatzaren 6an bake epaileak bere uko egitea aurkeztu du. Hori horrela, izendapen berriak egin behar dira hautagaien hurrenkeraren arabera.

Argudioak

Lehenengoa: Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek xedatzen dabena jarraitu da.

Bigarrena: Aipatutako Legearen arabera, erabagia hartzea Osoko Bilkureari jagoko eta, eskatzen dan gehiengoa, gehiengo osoa da.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bake Epaile legez GORKA ARANA ABIO izendatzeko proposamena egitea EAEko Auzitegi Nagusiari.

BIGARRENA: Bake Epailearen ordezeko legez NAIA ARENAZA SALAZAR izendatzeko proposamena egitea EAEko Auzitegi Nagusiari.

HIRUGARRENA: Interesdunei erabagiaren berri ematea.

Alkateak etenaldi bat egiteko eskatu du.

09:10en saioa berabiarazten da.

4.- BERMEOKO UDALAREN 2025. URTEKO ARAUDI PLANA ALDATZEA ONARTZEA, HILERRIKO ORDENANTZA ALDATZEKO.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=384>

Xedea

Bermeoko Udalaren 2025.urteko araudi plana aldatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko urtarrilaren 30ean izandako Osoko Bilkuran, Bermeoko udalaren 2025eko Araudi Plana onartu zen.

Bigarrena: Aipatutako erabakian, 2025.urtean aldatu edo moldatu gura diren Arauen zerrenda onartu zen.

Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren barne-araudia ez da aurreikusi 2025. urtean aldatu edo moldatu nahi diren araudien artean.

Hirugarrena: Gorpuak eta gorpuzkiak hobitik ateratzeari buruzko erabakiak hartzerakoan arazoak, desadostasunak eta familia-gatazkak sor ditzakeela jakinik, eta legeriak gai honi buruzko erantzun argirik ematen ez duela jakinik, lege-hutsune baten aurrean gaude, eta hutsune horri irtenbidea aurkitzeko, ezinbestekoa da araudia aldatzea, desadostasunak eta familia-gatazkak ekidin eta segurtasun juridikoa bermatzeko.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2025. urtean zehar aldatu edo onartzea aurreikusten dituen Ordenantzen Araudi Plana prestatu da Herri Administrazioen Prozedura Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 132. artikuluekin bat etortzeko.

Bigarrena: 40/2015 Legearen 3. artikuluan arautzen da Herri Administrazioek euren jardunean bete behar dituzten printzipio hauek: gardentasuna, eta helburuen arabera planifikazioa eta zuzendaritza.

Hirugarrena: 39/2015 Legearen 132. artikuluen 1. atalaren arabera, 2025. urtean onartu nahi diren araudi eta ordenantzak jasotzen dituen Araudi Plana onartu beharra dago.

Laugarrena: 39/2015 Legearen 132. artikuluen 2. atalaren arabera, onartutako Araudi Plana Gardentasun atalean argitaratuko da.

Bosgarrena: Plangintza onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluen arabera Ordenantzak onartzea Osoko Bilkuraren ahalmenekoa denez, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Plana aldatzea onartzea, honako araudiaren aldaketa aurreikusiz:

- Bermeoko Mendiluz udal hilerriari buruzko araudia.

Xedea: Ordenantzaren 45. artikuluen 6. atala moldatzea eta 7. atala gehitzea, gorpuzkiak hobitik ateratzearen inguruko eskaera eta baimenetan bermeak indartzea.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila

Egin gura den jarduna: Araudiaren artikulua bateko atal bat aldatzea eta artikulua horretan atal bat gehitzea.

Arrazoiak: Ezinbestekoa da desadostasunak eta familia-gatazkak ekidin eta segurtasun juridikoa bermatzeko.

BIGARRENA: Araudi Plana Bermeoko Udalaren webguneko gardentasun atarian argitaratzeko agindua ematea Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari.

HIRUGARRENA: Udal sail guztiei erabakia jakinaraztea.

2025. URTEKO ARAUDI PLANA

Erakunde publikoen jarduna arrazionalizatzeko, baliabide publikoak efizientzia handiagoaz erabiltzeko eta produktibitate handitzeko bultzatu beharreko eginkizunen artean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea onartzen eban 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea onartu zuen eta, Lege honek, administrazio publikoen efizientzia, gardentasuna eta bizkortasuna bultzatu gura dauz.

Arautzen dauzan atalen artean, Administrazio Publikoek daukeen Erregelamenduak onartzeko ahalmena aurreikusten da eta, erregulazio onaren printzipioagaz bat, ahalmen horretan, herritarrei entzunaldia eta parte hartzeko aukera emon jakela, eta era egokian emongo jakela bermatu asmoz, eta arauak egiteko prozeduran daukeen parte hartzea handiagotzeko helburuagaz, erregulatze onaren printzipio legeaz, gardentasuna aurreikusten da eta, gardentasunaren barnean, arauen elaborazioan herritarren parte hartzea aktiboa.

Hori lortzeko, 39/2015 Legearen 132. artikuluan, Arau-Plangintza xedatzen da, honakoa adierazoz: “1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamenduekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian”.

Bestalde, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legea onartu zuen, zeinetan administrazioaren jarduna zuzendu behar dabezan kriterio barri legeaz, gardentasun printzipioa eta helburuen arabeko planifikazioaren eta zuzendaritzaren printzipioa jasotzen dira.

Zentzu horretan, honakoa dino 40/2015 Legearen 3. artikulua: “1. Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

(...) c) Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea.

(...) g) Helburuen arabeko plangintza eta zuzendaritza, eta politika publikoen kudeaketaren kontrola nahiz politika horien emaitzen ebaluazioa”.

Beraz, Lege agindu horreek bete asmoz, eta Udalaren arautze ahalmenaren barnean, planifikatze betebeharra bete daiten alde batetik, eta herritarrek ahalik eta parte hartze handiena bermatu gurean bestetik, Bermeoko Udalaren 2025. urterako Araudi Plana onartu eta jakitera emotea da agiri honen helburua.

1.- 2025. urterako Araudi Plana. Erregulatze-ahalmenaren aurreikuspena.

Araudi Plan honetan, 2025. urtean zehar, Bermeoko Udalak onartuta daukazan Erregelamendu eta Ordenantzetatik aldatu edo moldatu gura diranak, eta onartu gura diran Erregelamendu eta Ordenantza barriak aurreikusten dira.

Eta aurreikuspen bat dan heinean, ez da loteslea izango. Hau da, gerta leike Araudi Plan honetan jasotako asmoak ez betetzea 2025. urtean, eta gerta leike be, aurretik ikusi edo pentsatu ez izan arren, sortutako beharrizanengaitik, beste arau batzuk aldatu, moldatu edo onartu behar izatea.

Halan da be, azken kasu honetan, eta 40/2015 Legeak bermatu gura dauzan gardentasun eta parte hartzea, eta planifikazio egokia bermatzeko, beharrizana sortu bezain laster, Araudi Plan hau iragartzen dan atalean bertan, horren barri emongo da, egokia dan iragarkiaren bidez.

2.- Gardentasuna:

Lege agindua era eraginkorrean betetzeko, Araudi Plan hau, Bermeoko Udalaren web guneko Gardentasun-atarian iragarriko da eta, aurreko atalean adierazo legez, leku berean argitaratuko dira Plan hau onartu eta gero sortu leikezan beharrizan eta ekimen barriak.

3.- Parte hartzea:

Erregelamendu eta Ordenantzak proposatzeko herritarrek daukeezan eskubideez gain, eta Arau zehatz bat behin-betiko aldatu, moldatu edo onartu orduko lege aginduz bete beharreko entzunaldian alegazioak aurkezteko aukeraz gain, Araudi Plan hau onartu eta iragartzen dan unetik aurrera, Araudi Planean aurreikusitako arauen ganeko proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. aurkeztu ahal izango dabez interesdunek, arau zehatzen erredakzio barria egiterakoan aztertuak izango diranak.

Aurreko paragrafoan aitatutako parte hartze aukera, araudi proiektu edo erredakzioa idatzi baino lehenago egin beharreko alde aurretiko kontsulta publikoa zabaldu arte erabili ahal izango da.

Aldez aurretiko kontsulta publikorik egin behar ez dan kasuetan, araudi proiektu edo erredakzioa egin arte egongo da parte hartze aukera hau erabiltzeko ahalmena.

Aurkeztutako proposamen, iradokizun, eskariak, etab. erredakzino barrian jasoko ez balira, horren zergaiti zehatza emongo litzakie proposatzaileeri, baina beti be, kontutan eukita, parte hartzea bermatzea behar-beharrezkoa bada be, parte hartze horretako emaitza ez dala loteslea eta ezin dauzala interes orokorra eta erakundearen arautze ahalmena mugatu.

Behin alde z aurretiko kontsulta publikoaren epea zabaldua, Bermeoko udal-araudiak eta ordenantzak sortzeko prozeduran alde z aurretiko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazino publikoari buruzko gidalerroen arabera aurkeztuko dira proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. Eta hori guztia, onarpen prozedurearen barnean aurreikusten dan entzunaldi epean aurkeztu leikezanen kalte barik.

4.- 2025. urtean aldatu edo moldatu gura diran Arauen zerrenda:

Bermeoko Udalak onartuta daukazan Arauen artetik, honeek aldatu gura dira urte honetan zehar:

1. Bermeoko hiriko oinezkoen gunea antolatzeko ordenantza

Xedea: Udaleko alde zaharreko gunean ibilgailuen kudeaketa xedatzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa eta Berrikuntza Saila

Egin gura dan jarduna: Baimen moten azterketa, lokal hutsen jabeen sartzeko aukera emateko, negozioak dituzten enpresaburuei baimen kopurua handitzeko eta xedatu gabe dauden etxebizitza turistikoak arautzeko.

Arrazoia: Alde zaharrean lan egiten duten eragileei sarbidea erraztu eta etxebizitza turistikoak arautzeko

2. Kirol Patronatuaren instalazino eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzen dauan arautegia:

Xedea: Udalaren Kirol Patronatuaren instalazinoak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea.”

Sail arduraduna: Kirol Saila

Egin gura dan jarduna: Aldatu, legera egokitzeko.

Arrazoia: Eguneraketa egitea, 2/2023 kirol legearen xedapenak ezarritakoaren arabera.

3. Bidaiariak Automobil Arinetan Garraiatzeko Zerbitzuari buruzko Udal Araudia:

Xedea: Udalerrian bidaiariak automobil arinetan (taxiak) garraiatzeko zerbitzua arautzen dau.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Auto-taxien jardura arautzen duen ordenantza zuzentzea eta eguneratzea.

Arrazoa: Akatsen bat zuzendu beharra dago, azken urteotan agertu diran bestelako zerbitzuak/erabilerak arautu eta 4/2019 Legea egokitzea.

4. Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza:

Xedea: Bermeon leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratzea.

Arrazoa: Ordenantza eguneratu behar da 44/2020 DEKRETU Ari, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretua aldatzen duenari egokituz eta 9/2022 Legea egokitzeko. Halaber, Animalien eskubidea eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legea ere egokitu beharra dago.

5. Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko udal ordenantza:

Xedea: Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Espazio publikoaren kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urteetan espazio publikoan ipinitako terraza kopuarua nabari ugaritu da. Terraza horreek modu ordenatuan ipintea bermatzeko ordenantza berrikustea beharrezkoa da.

6. Udaltzaingoaren barne Araudia:

Xedea: Bermeoko udalerriko Udaltzaingoaren funtzionamendua, antolakuntzea, egiturea eta Araudi honetan aitaturako gainontzeko alderdiak egokitzeko arauak ezartea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa

Egin gura dan jarduna: Adinaren arabera egokitutako zerbitzua arautzea

Arrazoa: Zahartu ahala polizia baten funtzioak modulatzeko, segurtasun eta eraginkortasun operatiboko kontua izateaz gain, zerbitzuan emandako urteetan metatutako esperientziaren eta ezagutzaren aintzatespena eta balioespena ere bada. Aldaketa honekin, 60 urtetik gorako udaltzainei euren adinera eta gaitasunera egokitutako lanak burutzeko aukera ematen da.

7. Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak ezartzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura dan jarduna: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia berraztertu eta eguneratu.

Arrazoa: Ezinbestekoa da Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak egungo beharrianetara egokitzea.

8. Bermeoko Udal Azokako Ordenantza:

Xedea: Udal azokaren erabilera eta kudeaketa arautzen dau.

Sail arduraduna: Behargintza Saila.

Egin gura dan jarduna: Postuen emakidei buruzko arauak gaur egungo beharrianetara egokitu.

Arrazoa: Gaur egun araututa dagoen moduan ez diranez postuen esleipenak eta ustiapena bermatzen, gaur egungo beharrianetara egokitu beharra dago.

9. Musika eskolako barne arautegia

Xedea: Musika eskolako barne arautegia berriztu.

Sail arduraduna: Hezkuntza saila

Egin gura dan jarduna: gaur egungo beharrianetara egokitu

Arrazoa: Zaharkituta dago eta eguneratu beharra dago.

10. Bizikidetza Ordenantza:

Xedea: espazio publikoa topagune eta bizikidetzarako leku gisa zaintzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa

Egin gura dan jarduna: araudiaren eguneraketa, ikusi diren beharrianak asetzea

Arrazoa: herrian ematen diren hainbat arazoei konponbide bat eman ahal izateko ordenantza eguneratu beharra dago.

11. Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko enplegatuek bertaratu gabeko zerbitzua, telelanaren formularen bidez, nola eman arautzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura den jarduna: Bermeoko Udalaren eta lanpostuen beharrianen eta berezitasunen arabera eguneratzea

Arrazoa: Ezinbestekoa da telelana egiteko araudia egungo beharrianetara egokitzea.

12. 12. Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren ordenantza.

Xedea: Ordenantzaren 45. artikularen 6. atala moldatzea eta 7. atala gehitzea, gorpuzkiak hobotik ateratzearen inguruko eskaera eta baimenetan bermeak indartzea.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila

Egin gura den jarduna: Araudiaren artikulua bateko atal bat aldatzea eta artikulua horretan atal bat gehitzea.

Arrazoa: Ezinbestekoa da desadostasunak eta familia-gatazkak ekidin eta segurtasun juridikoa bermatzeko.

5.- 2025. urtean onartu gura diran Arau barrien zerrenda:

Bermeoko Udalak Arau barri honeek izapidetu eta onartu gura dauz urte honetan zehar:

1. Bermeoko Udal antolaketa eta funtzionamendurako Araudia

Xedea: Udala antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

2. Administrazio Elektronikoa Bermeoko Udalean:

Xedea: Azken urteetako eraldaketa prozesu guztia xedatzea, udal barnean espediente guztiak elektronikoki burutu eta pertsona juridiko zein fisikoekin hartu eman guztia modu elektronikoan berme juridiko guztiekin burutu dadin.

Sail arduraduna: ATB Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako erregelamendurik eta xedatu beharra dagoelako.

3. Partaidetza:

Xedea: Udalak egiten dituen prozesu partehartzaileak xedatu eta lankidetza dinamikak udal jardunean txertatzeko modua ezarrita uzteko.

Sail arduraduna: ATB Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako Araudirik eta funtzionamendu bateratua eta sistematikoa bilatzen delako.

4. Bermeoko udalerriko hondartza eta itsas-kalen erabilerari buruzko ordenantza:

Xedea: Aritzatxu hondartzaren eta herriko kaleen erabilera arautzeko.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Inguru natural horien erabilera arautu beharra: txakurrak, kanpaldiak, motorren erabilera...).

5. Bermeoko higiezinaren eta kultur ekipamenduen erabilera eta funtzionamendua arautzeko ordenantza

Xedea: Aitatutako lokalen erabilera eta kudeaketa arautzeko.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako erregelamendurik eta arautu beharra dago.

6. Bermeoko Udal Artxiboko Araudia

Xedea: Udal Artxiboa antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

7. Apartamentu turistikoen inguruko Ordenantza:

Xedea: Apartamentu turistikoei buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Apartamentu turistikoen kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urtean Bermeon dagozan apartamentu turistikoak asko ugaritu dira, batez ere alde zaharrean. Jarduera barri hau arautzea beharrezkoa da.

6.- 2026. urterako Ordenantza fiskalak:

Ordenantza fiskalak urtero errebisatzen dira eta, ondorioz, 2025. urtean be, 2026. urterako errebisatzeko aurreikuspena dago.

7.- Bestelako ekimenak:

Aurretik adierazotako ekimenetatik kanpo, udal talde politikoek eta negoziatzino mahaiak daukeen proposatze ahalmenetatik sortu leikezanak be bideratuko dira 2025. urtean, horrelakorik balego.

Eta bardin egon leikezan prozedura judizial edo epaien ondorioz, edota legedi aldaketen ondorioz, araudi zehatz bat aldatu, moldatu edo onartzeko betebeharra sortuko balitz.

Kasu honeetan, eta arintasuna bermatze aldera, Araudi Plan honen aldaketak egiteko ahalmena Alkatetzarengan delegatzen da.

5.- UDAL HILERRIKO ORDENANTZAREN ALDAKETA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=498>

Xedea

Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren barne-arautegia aldatzeko beharrianaren azterketa (45. art.)

Aurrekariak

Lehenengoa: Ordenantza aldatzeko kontsulta publikorako epea zabaldu zen 2025eko apirilaren 15etik maiatzaren 9ra arte. Epe horretako Sarrera Erregistroa ikusita, ez zela ezelako proposamenik jaso egiaztatu da.

Bigarrena: Ordenantza honen aldaketa Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Planan aurreikusiko da.

Hirugarrena: Kontsulta publikoaren fasea eginda eta Araudi Planean jasota, Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren barne-arautegiaren aldaketa prestatu da.

Argudioak

Lehenengoa: Pertsona baten gorpuzkiek juridikoki ez dute gauza izaera, eta beraz, “res extra commercium” dira, hau da, haien trafikoa debekatuta dago eta ezin da haien gaineko edukitza eskubiderik erabili. Lurperatzeen kasuan –albazea egon ezean¹– erabakitzea nori dagokion argi apur bat eman lezaketen legeei dagokienez, honako hau dugu:

- Udal Hilerrietan Ehorzteari buruzko azaroaren 3ko 49/1978 Legearen 2.1 artikulua honela azaltzen du “los ritos funerarios se practicarán sobre cada sepultura de conformidad con lo dispuesto por el difunto o con lo que la familia determine”. Puntu horretan, argi utzi du senideei dagokiela hiletaz erabakitzea, baina ez du argi utzi zer gerta daitekeen haien artean liskarrak daudenean.
- Kode Zibilak, 1894.2 artikuluan, pertsona hil ondoren ehorzketaren gastua nork ordaindu behar duen ere aipatzen du “Los gastos funerarios proporcionados a la calidad de la persona y a los usos de la localidad deberán ser satisfechos, aunque

¹ Hildakoak albazea bat izendatu izan balu, desberdina izango litzateke. Kasu horretan, Kode Zibilaren 902. artikulua aipatzen duen bezala, albazea arduratu ahal izango litzateke hileta kudeatzeaz eta, luzapen analogikoz, haren gorpuzkiak lurpetik ateratzeaz.

el difunto no hubiese dejado bienes, por aquéllos que en vida habrían tenido la obligación de alimentarle”.

- Eta honekin lotuta, Kode Zibilaren 144 artikulua arabera, “La reclamación de alimentos cuando proceda y sean dos o más los obligados a prestarlos se hará por el orden siguiente: 1.º Al cónyuge; 2.º A los descendientes de grado más próximo; 3.º A los ascendientes, también de grado más próximo y 4.º A los hermanos, pero estando obligados en último lugar los que sólo sean uterinos o consanguíneos. Entre los descendientes y ascendientes se regulará la gradación por el orden en que sean llamados a la sucesión legítima de la persona que tenga derecho a los alimentos.”.

Esan bezala, gai horrek ez du arauetan berariazko ebazpenik, baizik eta kasuistika garrantzitsu batekin epaitegiek ebatzi dute, eta, maiz, aplikazio analogiko baten bidez ebatzi da, Kode Zibilaren 1894. artikulua oinarri hartuta (Kode Zibilaren 143. eta 144. artikuluekin lotuta). Horren arabera, printzipioz, eskubide hori izango luke ehorzketa bere gain hartzeko betebeharra duenak, zeina, aipatutako 1894. artikulua arabera, elikatzeko betebeharra izango bailitzateke.

Baina, gorpuzkiak lurpetik ateratzeko aukera edo ezintasunaren inguruan, berariaz araututa ez dagoen gaia denez, epaitegiek modu ezberdinean ondorioztatu dute, puntu honetan segurtasun juridikoa lortzeko irizpide uniformerik jarraitu gabe.

Hala ere, irizpide baketsu bat dago: hileta-eskubideen titulartasunaren administrazio-auziak, azken batean, hobian nor egon daitekeen eta nor ezin den egon erabakitzeak aukera dakar, baina ez dago erabakitzerik hobian egon behar duen edo aldatu, hobitik atera edo erraustu egin behar den. Hori, azken batean, prozedura zibil bati dagokio, PZLko 45 artikuluekin eta Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 12. artikuluekin bat.

Illo honetan, Aragoiko Justizia Auzitegi Gorenaren 2021eko irailaren 15eko 276/2021 epaiak honako hau ebatzi du “no se puede tomar en vía administrativa como medida cautelar la suspensión de la exhumación e incineración de los restos del fallecido, pues es una decisión no sobre un derecho administrativo, sino sobre los restos, lo que se está

pretendiendo, por lo que habría de obtenerse tal cautelar en un juzgado civil, que es el que puede resolver tal cuestión.”.

Bestalde, Valentziako Justizia Auzitegi Gorenaren 2022ko irailaren 20ko 307/2022 epaiak atzera bota zuen eskatzailearen amaren gorpuzkiak hobitik ateratzeko baimena ukatu zuen udal ebazpena. Alde horretatik, udalaren ebazpenak honako hau ulertu zuen “No cabe autorizar la exhumación de los restos mortales de Doña Isabel –madre de la solicitante- por existir disconformidad entre las partes y ser ésta una cuestión que deberá ser ventilada previamente en la jurisdicción civil, puesto que, no existiendo una regulación expresa en nuestro ordenamiento jurídico, el Ayuntamiento no puede emitir una resolución que decida sobre quién tiene derecho a disponer de los restos mortales.”. Justizia Auzitegi Gorenaren hitzetan “Con la satisfacción de la solicitud de exhumación de la sepultura por parte del único hijo y heredero de la finada (aspectos no discutidos, como tampoco la intervención del menor a través de su representación legal) la Administración municipal habría dictado un acto administrativo de naturaleza autorizatoria, naturalmente sin perjuicio del derecho de tercero, pero la tutela de eventual derecho de terceros en casos como el que nos ocupa no corresponde a la autoridad municipal, sino a los jueces del orden jurisdiccional civil, de manera que apareciendo en el expediente administrativo el hermano de la finada como cotitular de los derechos del nicho y habiéndose opuesto a la exhumación solicitada, procedía notificarle la resolución en su condición de interesado y al objeto de poder activar la acción civil que considerase oportuno, incluyendo solicitud de mediada cautelar. En este orden de cosas, conduciéndose por el principio de prudencia, podría haber fijado el trascurso de unos días o semanas condicionando la ejecución material del traslado ante la reseñada eventualidad. Lo que no se ajustó a derecho fue dictar la resolución impugnada con falta de fundamento legal.

Bigarrena: Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren Ordenantzaren 14. artikularen arabera, hileta-eskubideko tituluak titularrari esleitutako ehorzketa-unitatean ehortzitako gorpuak eta gorpu-hondarrak emakidan zehaztutako epeaz edukitzeko eskubidea ematen dio.

Honekin batera, Ordenantzaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, hileta-eskubidearen emakidak eskubide hauek ematen dizkio titularrari:

- a) Gorpuak eta gorpu-hondarrak kontserbatzea.
- b) Barrutiaren kontserbazio egokia eta garbiketa orokorra, eta lorategi-zonalde orokorraren zainketa exijitzea.
- c) Bermeoko Udalaren aurrean egoki iritzitako erreklamazio oro aurkeztea.

Lurperaketen kasuan, ordenantzaren 38. artikuluko 2. atalak aurreikusten duenez, gatazka edo desadostasunen kasuan ehorzketak hirugarren eskubideen kalterik gabe egingo dira eta, zuzenean exekutatu dira. Behin ehorzketa exekutatu eskubidearen titularra ados egongo ez balitz, egokiak diren errekursoak aurkezteko eskubidea izango du, baina inolaz ere ezingo da ehorzketa atzera egin, deshobitzeko baldintza guztiak betetzen ez badira.

Gaur egun, hilotzak edo gorpuzkiak hobitik ateratzeko, ordenantzaren 45. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete behar dira eta, horretaz gain, dokumentu edo agiri hauetakoren bat aurkeztea beharrezkoa izango da:

- a) Hobitik aterako den lekuaren titulua edo titularraren baimena izatearen zinpeko aitorpena.
- b) Hobitik aterako den lekuaren deshobitzea eskatzeko eskubidea kreditatzen duen agiria edo zinpeko aitorpena.
- c) Epaitegiko agindua.

Esandakoaren arabera, argi dago gorpuzkiak hilobitik ateratzeko erabakietan sor daitezkeen gatazkak ez direla zuzenbide administratibokoak, baina egia da, era berean, gaur egungo araudia, zinpeko aitorpen baten aurkezte hutsarekin, ez dela nahikoa eskubideak bermatzeko, horma-hobiaren titulartasuna eta hildakoaren oinordeko izateko oinordetza-eskubideak pertsona berarenak ez izatea gerta daitezkeen neurrian.

Gai delikatu da, familia-desadostasunak sor ditzakeena. Izan ere, 2019ko apirilaren 5ean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiak epai bat eman zuen, Bermeoko Udalak gorpuzkiak hobitik ateratzeko espediente batean emandako ebazpen baten aurka jarritako errekursoa baiezteko. Hortaz, gaia baketsua ez dela ikusi daiteke.

Beraz, gorpuak eta gorpuzkiak hobitik ateratzeari buruzko erabakiak hartzerakoan arazoak, desadostasunak eta familia-gatazkak sor ditzakeela jakinik, eta legeriak gai honi buruzko

erantzun argirik ematen ez duela jakinik, lege-hutsune baten aurrean gaude, eta hutsune horri irtenbidea aurkitzeko, eskubidearen analogiara, zuzenbidearen printzipio orokorren aplikaziora eta ohiturara jo beharra dago.

Horregatik, hobiak irekitzeko, egokia litzateke 45. artikuluan 6. atalean informazio eta dokumentazio hauek eskatzea:

- a) Gorpua edo gorpuzkien ardura hartuko duen pertsonaren izena, abizenak eta NANA, hildakoaren oinordekoa dela egiaztatu beharko duena.
- b) Gorpua edo gorpuzkiak hobitik aterako zaizkion hildakoaren izen-abizenak.
- c) Zein ehorzketa-unitatetan dagoen.
- d) Gorpua edo gorpuzkiak eramango diren tokia zehaztu.
- e) Epaitegiko agindua, hala dagokionean.

Honekin batera, 45. artikuluan 7. atal bat sartzea egokia litzateke honako edukiarekin:

“Desobiratzeak hirugarren eskubideen kalterik gabe egingo dira eta, zuzenean exekutatu dira aipatutako irizpideak betetzen badira. Behin deshobiratzea exekutatuta eskubidearen titularra ados egongo ez balitz, egokiak diren errekursoak aurkezteko eskubidea izango du.”.

Aldaketa horiekin, 45. artikuluan 6. atala moldatu eta 7. atala gehitu nahi dira, aurreikusitakoak etorkizuneko arazoak sortu leikezala ikusi dalako. Aldaketa horregaz, etorkizuneko kudeaketa arazoak, desadostasunak eta familia-gatazkak ekidin eta segurtasun juridikoa bermatu gura dira.

Hirugarrena: Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan arabera Ordenantzen aldaketa proposamena egin baino arinago burutu beharreko kontsulta publikoa egin zen, aurrekarietan adierazten den moduan.

Aldaketa horregaz, etorkizuneko arazoak eta desadostasunak ekidin eta segurtasun juridikoa bermatu nahi dira. Eta hori izan da zehatz-mehatz eta soilik, Ordenantza honen aldaketan jaso dena.

Ordenantza honen aldaketa Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Planan aurreikusiko da.

Laugarrena: Aitatutako 39/2015 Legearen 129. artikulua arabera, araugintza prozesuan erregulazio oneko printzipioak bete behar dira, eta hori horrela dela justifikatu behar da.

Ordenantza aldaketa honen helburua kontutan edukita, indarrean dagoen legediak ezartzen dauzen mugen barruan eta garapen ahalmenekaz bat egiten da, udalerriko hilerriaren funtzionamenduari jagokozanak arautzen dauzen heinean.

Aldatu gura dena, Ordenantzaren erredakzio bera denez, modu eraginkor batean egiteko tresna bakarra Ordenantzaren erredakzio bera aldatzea da.

Ordenantzan aldatutakoak, ase nahi diren beharrianak bermatzeko gutxienekoak dira, eta, gehitu nahi den paragrafoa, proportzionaltasun printzipioarekin bat dator, beharbeharrezkoak dena bakarrik arautu nahi dalako.

Aldaketa honen bidez, gainera, interesdunen segurtasun juridikoa bermatu nahi da, goian esan den moduan, aldaketarekin, kudeaketa arazoak, desadostasunak eta liskarrak ekidin nahi direlako.

Hori aldatzeak, gardetasunaren argipean aritzea indartzen dauen moduan, era arautuan eta normalizatuan jardutea, eta araututakoa bete ahal izango dala bermatzea suposatuko dau, administrazioaren funtzionamenduan efizientzia handitzea ekarriko dauena ezinbestean.

Eta esan den moduan, aldaketa horrekin etorkizuneko arazoak, desadostasunak eta familia-gatazkak ekidin gura dira.

Bosgarrena: 2025eko maiatzaren 14an egindako justifikazio txostenean adierazten dan moduan, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen dauen 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatutako erregulazio oneko printzipioak betetzen dira aldaketa honetan.

Seigarrena: Ordenantzen onarpenari buruz, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLk, bere 56. artikuluan, hauxe jasotzen dau: "La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al procedimiento establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Para la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos deberán observarse los mismos trámites que para su aprobación."

Zazpigarrena: Eta Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, bere 49. artikuluan, honakoa arautzen dau: "La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al siguiente procedimiento:

- a) Aprobación inicial por el Pleno.
- b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
- c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.

En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional".

Hori horrela, Ordenantzaren aldaketa hasikeraz onartzeko ahalmena Osoko Bilkurari jagoko.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo soilaz, (EH BILDUren (5) eta GUZANen (3) aldeko botoekin, eta EAJ-PNVren (6) abstentzioarekin), honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Mendiluz udal hilerriaren barne-arautegiaren 45. artikulua aldaketa hasikeraz onartzea 6. atalean erredakzio honekin:

"6. Gorpua ateratzeko eskaeran honako datu eta agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Gorpua edo gorpuzkien ardura hartuko duen pertsonaren izena, abizenak eta NANa, hildakoaren oinordekoa dela egiaztatu beharko duena.

- b) Gorpua edo gorpuzkiak hobitik aterako zaizkion hildakoaren izen-abizenak.
- c) Zein ehorzketa-unitatetan dagoen.
- d) Gorpua edo gorpuzkiak eramango diren tokia zehaztu.
- e) Epaitegiko agindua, hala dagokionean.”

Era berean, 45. artikuluan 7. atal berri bat sartzea honako edukiarekin “Desobiratzeak hirugarren eskubideen kalterik gabe egingo dira eta, zuzenean exekutatu dira aipatutako irizpideak betetzen badira. Behin deshobiratzea exekutatuta eskubidearen titularra ados egongo ez balitz, egokiak diren errekursoak aurkezteko eskubidea izango du.”.

BIGARRENA: Entzunaldi epea zabaltzea eta, horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzeko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

HIRUGARRENA: Entzunaldi epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, Araudiaren aldaketa behin betiko onartutzat emango da, Araudia indarrean sartzeko bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar izatearen kalterik gabe.

6.- SASTAR BATZEAGATIK TASAREN EPIGRAFE ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=24&t=852>

Gaia

Sastar batzeagatik tasaren epigrafeak hasieraz aldatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko abenduaren 13an sastarrak batzeagatik tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren aldaketaren behin betiko onespina argitaratu zen. Aldaketak aztertzen duen txosten ekonomikoaren arabera, urtean zehar sastar batzeagatik zerbitzuak 377.816,39€-ko defizita zuen, kuotetatik zetozen diru-sarrerak ez baitzuten zerbitzuaren benetako kostua estaltzen.

Egoera hori partzialki zuzentzeko, 2024ko abenduan kuoten berrikuspen bat onartu zen, 2025etik aurrera indarrean dagoena. Berrikuspen horrek, batez beste, %21,22ko igoera

ekarri zuen epigrafe batzuetan; beste batzuetan, berriz, konstanteak izan ziren, eta horietako bi murriztu ere egin ziren.

2024	TXOSTEN EKONOMIKOA	
Bilketa	649.266,17	
Tratamendua	917.071,38	
Zerbitzu totala	1.566.337,55	
Tasen Diru Sarrerak	1.188.521,16	IGOERA
Defizita	377.816,39	32%

Bigarrena: Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2025eko martxoaren 20an egindako saioan onartutako akordioa betez, Ogasun eta Finantza Sailak martxoaren 31ko 19/2025 Foru Dekretua 62. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen. Argitalpena hondakinen ustiapenerako prezio publikoen igoerak indarrean sartuko zirela jakinarazten zuen. 2025eko apirilaren 1etik aurrera indarrean sartu ziren aldaketek zuzeneko eragina dute sastar biltzeagatik tasaren kudeaketan.

Argudioak

Lehenengoa: 2025eko apirilaren 8ko 7/2022 Legeari jarraituz, sastarra batzeagatik kudeaketa-tasa berri bat ezarri beharko da. Tasa hori bereizi egin beharko da eta ahalik eta gehien egokitu beharko da zerbitzuaren benetako kostura, hondakinak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuaren prestazioan defizita sortzea saihestuz. Hala jasotzen da apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 11.artikuluari, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, ekonomia zirkular baterako:

“**Artículo 11.** Costes de la gestión de los residuos.

3. En el caso de los costes de gestión de los residuos de competencia local, de acuerdo con lo dispuesto en el texto refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, las entidades locales establecerán, en el plazo de tres años a contar desde la entrada en vigor de esta ley, una tasa o, en su caso, una prestación patrimonial de carácter público no tributaria, específica, diferenciada y no deficitaria, que permita implantar sistemas de pago por generación y que refleje el coste real, directo o indirecto, de las operaciones de recogida, transporte y tratamiento de los residuos, incluidos la vigilancia de estas operaciones y el mantenimiento y vigilancia posterior al cierre de los vertederos, las

campañas de concienciación y comunicación, así como los ingresos derivados de la aplicación de la responsabilidad ampliada del productor, de la venta de materiales y de energía.”

Bigarrena: Proposatutako igoera hori erabat egokitzen da Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru-Arauan ezarritako mugetara, zeinen arabera:

“**25. artikulua.** Zerga Kuota (...)

2. Oro har, eta aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, zerbitzu bat edo jarduera bategiteagatik ezarritako tasen zenbatekoa ezin izan daiteke, osotasunean harturik, delako zerbitzu edo jardueraren benetako kostua edo aurreikusten den kostua baino handiagoa, ezta, halakorik ezean, jasotako prestazioaren balioa baino handiagoa ere. Zenbateko hori zehazteko, zuzeneko nahiz zeharkako kostuak hartuko dira kontuan, are finantza-kostuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, behar denean, tasapeko zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena bermatzeko beharrezkoak direnak ere, zenbatekoa ordaintzen duen erakundea edo aurrekontua edozein delarik ere. Hortaz, organo eskudunak onetsitako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu da zerbitzu edo jardueraren mantentze eta arrazoizko garapena”.

Hirugarrena: Aurrekarietan aipatutako 2025eko martxoaren 20an onartutako zerbitzuen prezio igoerak, Udalak ematen duen zerbitzuaren guztizko kostuan zuzeneko eragina du, eta nabarmen aldatu du. Proposamenaren abiapuntua defizit gehigarriaren aurreikuspena izango da.

2025eko zerbitzua finantzatzeko 560.000 euroko aurrekontu-partida bat onartu zen. Hala ere, urtearen amaieran zerbitzuaren guztizko defizita 704.656,79€-ra iritsi dela kalkulatu da, hau da, 144.656,79€-ko kostu gehigarria sortuko duela estimatu da.

Zerbitzu saileko teknikariaren datuetan oinarrituta, eta 2025ean indarrean dauden kuotak eta altak kontuan izanda, honako egoera aurreikusten da:

- 2024ko defizit erreala: 580.013,87€.
- 2025erako onartutako aurrekontua: 560.000€.
- 2025eko martxora arte aurreikusitako defizita: 139.143,27€.
- 2025eko apiriletik aurreikusitako defizita: 565.513,52€.
- 2025eko aurreikusitako defizit osoa: 704.656,79€.

- Defizit gehigarria: aldea onartutako aurrekontuaren eta aurreikusitako defizit osoaren artean: $-704.656,79\text{€} + 560.000\text{€} = -144.656,79\text{€}$

2025ko AURREIKUSPENA	AURREIKUSPENAK	
Zerbitzu kostu osoaren estimazioa	2.122.235,63€	
Tasaren Diru Sarrerak	1.417.578,84€	
Aurreikusitako Defizita	704.656,79€	Defizit/ Diru-sarrerak
2025ko Aurrekontua	560.000,00€	%49,71
Defizit gehigarria	144.656,79€	

**Zerbitzu kostu osoaren estimazioa= Tasaren Diru sarrerak + Aurreikusitako Defizita= $1.417.578,84 + 704.656,79 = 2.122.235,63\text{€}$.

**Aurreikusitako kostuaren = Aurreikusitako defizita / Tasaren diru sarrerak= $704.656,79 / 1.417.578,84 = \%49,71$.

Hurrengo taulan diru-bilketaren zenbatespena zehazten da.

2025KO EGOERA						
epigrafeak	altan	Kuota 3 hilabetero epif. bakoitzak	Diru-sarrera 3 hilabetero	Urteroko kuota epig. Bakoitzak	Urteroko Diru- sarrera	EPIGRAFE ALDAKETA 2024.12.23
Etxebizitzak	8729	26,47 €	231.056,63 €	105,88 €	924.226,52 €	28,62%
Ostatuak <= 10 pertsona	52	70,00 €	3.640,00 €	280,00 €	14.560,00 €	20,59%
Ostatuak > 10 pertsona	8	80,00 €	640,00 €	320,00 €	2.560,00 €	8,17%
Ikastetxeak/hezkuntza zentroak	6	85,59 €	513,54 €	342,36 €	2.054,16 €	0,00%
Akademikak/hautzaindegiak	11	70,00 €	770,00 €	280,00 €	3.080,00 €	-12,96%
Uleapaindegi / gimnasi/edertze	74	80,42 €	5.951,08 €	321,68 €	23.804,32 €	0,00%
Mediku kontsultak	4	77,16 €	308,64 €	308,64 €	1.234,56 €	0,00%
Haginalriak/mediku zentruak	18	97,05 €	1.746,90 €	388,20 €	6.987,60 €	0,00%
Anbulategia/arrantza mutua	2	97,05 €	194,10 €	388,20 €	776,40 €	0,00%
Fruta dendak	11	105,13 €	1.156,43 €	420,52 €	4.625,72 €	22,06%
Supermerkatuak < 200m2	1	192,09 €	192,09 €	768,36 €	768,36 €	21,12%
Supermerkatuak (201-400m2)	4	255,95 €	1.023,80 €	1.023,80 €	4.095,20 €	20,83%
Supermerkatuak > 400m2	5	369,50 €	1.847,50 €	1.478,00 €	7.390,00 €	20,58%
Janaridendak/haragi/arrain	30	89,47 €	2.684,10 €	357,88 €	10.736,40 €	22,43%
Merk/kiosko > 100m2 (6.6.1)	45	100,58 €	4.526,10 €	402,32 €	18.104,40 €	22,15%
Merk/kiosko < 100m2 (6.6.2)	104	75,87 €	7.890,48 €	303,48 €	31.561,92 €	22,87%
Botikak eta ortopediak	6	98,98 €	593,88 €	395,92 €	2.375,52 €	0,00%
Diskotekak/jai aretoak	1	126,58 €	126,58 €	506,32 €	506,32 €	21,70%
Jatetxeak	12	236,53 €	2.838,36 €	946,12 €	11.353,44 €	20,91%
Kafetegiak, pub-ak, jantokiak	13	122,45 €	1.591,85 €	489,80 €	6.367,40 €	21,76%
Barrak eta tabernak	55	113,86 €	6.262,30 €	455,44 €	25.049,20 €	21,89%
Txokoak/erretiratu en klubak	42	56,65 €	2.379,30 €	226,60 €	9.517,20 €	23,88%
Banketxeak	11	163,80 €	1.801,80 €	655,20 €	7.207,20 €	0,00%
